

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko uztailak 24, 159. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz



**IZASKUN
ZUBIZARRETA**
Biolina gozamen
eta lanbide


Abuztuan, 'herria zaintzen'

ACUVUE

Johnson & Johnson

Botatzeko lehen lentilak
mundu mailan

Iturriotz, 29 ARRASATE Tfnoa: 79 16 98
Bidekurutzeta, 13 BERGARA Tfnoa: 76 13 73



**ZURE IKUSMENAREN
OPORRAK!!!**

Astean behin aldatu eta kitto!!!
Gau eta egun aldean.



GARAGORRI

OPTIKOAK


Taren Uau
skadin.

**Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean**



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karnele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jauriritzako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Ya te huele kolonia

Animalia gehienek eta gizakiok ere ai, sexualki erakargarri diren lurrinak isurtzen ditugu; baina, gure kasuan, erreazio biologiko hau ikasitako beste batez estal daiteke- elarik.

la denontzat, gorputzaren benetako usaiak mehatxu baino ez dira publikoki eta hain dira beldurgarri ze ez dugun gai hori inoiz ukitzen, gusto txarrekoa baita, bazter guztiei farre eragiteko bide edo ta zarpail agertzeko arrisku.

Zakurren lagez suman barik, jarrera antisensualez ari gara, osatzen dugun gizarte "superdesusainduaz", alegia. Propaganda egileek urtero desterratu beharreko usai barriren bat kausitzen dute, "Kattetuok" agerian uzten dugularik geure izua. (Sexu eta usai eskutik oratuta doaz adiskide txintxoak dire-lakoz).

Usaimenari, ordea, gauzak oroiaraz- teko botere majikoa ukatu egiten diogu gizarte sensuala litekeena, gizarte sexuala bihurtuz.

Arabiarrek emaztegaia usaitzea es- katzen dute sarritan, eta baztertu "usai txarra edukiz gero". Beraientzat laguna usaitzea ez da desiragarri eta itxura onekoa soilik; hatsa ukatzea (edo arnasa esango diogu) lotsa duenaren portaera baino ez baita. Horrexegatik gara gu arabiar askorentzat pertsonaia lotsati eta akonplejatuak.

Ginea Berriko kanum-irebe tribuan, lagunminak elkarri agur egitean, geratzen denak, batzutan, besazpia ukitzen dio urrunduko denari, haren gomuta iza- teko.

Bizkaitarrak, telebistan besazpi este- rilizatuak musukatzen dituen neska sanex bat ikusten du eta gauean izareetan mur- gildu bebaondokoen bila (Ez da kon- traesana).


Gauzak tamaina honetan nahasten direnean, munduan aspaldiko denak ja- kin badaki *bizkaino* hari jazioa farregarri dela.

Nola galde daiteke klitorisa aurrean ala atzean dagoen!

JON IÑAKI LASA

Memesa
79 42 22

AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA



Pasajes de San Pedro, 1

GASTEIZ

Tfnoa: 945 - **28 35 34**



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57




Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**MUXIBAR
TABERNA**

**Ezin hoberik
inguruan topatu!**

Bizkaia Etorb.
Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ATBn ere gizonezkoak nagusi

Ez dakit konturatu zareten, baina ATBn gizonezkoek ematen zaien papera zabalagoa da askoz. Ez dut esaten nahita izan dela, baina bai kasualitatez edo, hala suertatu dela.

ARRASATE PRESSEKIN bidali zitzaigun lehengo "ATB-Berriak"-etan nahiko argi agertzen zen.

Informazio saila gizonezkoek betetzen zuten, bestelakoak emakumezkoek berriz. Ahotsei dagokionez, askoz gehiago entzuten dira gizonezkoen ahotsak emakumezkoenak baino.

Askotan horrelakoetan erreparatu ere ez dugu egiten, halakoak normaltzat jotzen ditugu. Baina egia da ATB-n ere gizonezkoak direla nagusi.

JOSEFA ESTRELLA MERINO

ASA taldeak erantzun

Onddio be harridura da nagusi "ASAburuon" artien, izen be, ez dou konprendiruten azken ARRASATE PRESSIEN agertutako desafixuen tonue eta harrokeixie. Ez ahaztu, Besaideko mendiberanduzaliok (mendigoizaliek lehenau), azken desafixuen kriston errepasue emun gutzuela. Itxurionez, belarri makurrok tentetu jatzue barrio be, baine ez dutzo ardure, joan eraingo dutzieu atzea be euron lekure, makurrera.

Dana dala, onartu biherrekue onarketan dakiguleko, eskerrak emun gure dutzueu abuztue entrenetako itxi duzkuzuelako. Eskerrak emun bañe alperrik, izen be abuztue zerbezak eran, jan jan iñ eta euzkiapien egoteko diseñaute dau eta ez kulotie jantzi eta sillie dastaketako.

Bildurrik? Ezta apurrik be! Mendixen ibiltteko desafixue bota baluskezue be, hantxe be, larri girauko zitzakie!

Hortik atara kontuek. Gorantziak!

ASA

Oporrak!

Urte guztiko lanaren ondoren oporrak hartzera goaz. Beraz, datorren asteen ez duzu etxean ARRASATE PRESSIK jasoko eta telebistari ATBren tekla sakatutakoan ere ez duzu programaziorik aurkituko. Irailean berrito zuekin izango gara. Ondo-ondo pasatu!!

A! eta ez ahaztu gero gure Postal Lehiaketan parte hartzea, bi lagunentzako afari eder bat dago jokuan. Animatu eta bidali iezaguzu zuk ere postaltxo!




J. Ramón Stamendi
HARATEGIA
Ferreries, 20 · Tel. 79 62 28
ARRASATE

Zertarako erabiltzen duzu uda?




Anunciacion Martinez
(Etxekoandrea)

Atsedeen hartu eta oporretara joateko. Niri gustatzen zaidana oinez ibiltzea da.



Miguel Fernandez
(Jubilatua)

Gaisorik nago eta hemen geratuko naiz atsedeen hartzen, komeni zait eta. Lehen ere nahiko lan egin dut eta udan paseatu besterik ez dut egingo, txikiteoan ibili eta erre ezer ez.




Ramon Ugalde
(Langilea)

Uda? ba parte bat behintzat oporretara joateko, bidaiak egiteko. Atsedeen hartu, eguzkia edo kirol gutxi... bidaiatu, lekuak eta herriak ikusiz. Aurten Dinamarkara noa.




Josefa Garcia
(Etxekoandrea)

Atsedeen hartu eta hortik zehar joan ondo pasatzera, urte osoa lanean pasatzen dugu eta. Eguzkia hartzea gustatzen zait, baina Galiziara noa eta eguraldia hemengoaren antzerakoa denez...



Ane Aranbarri
(Langilea)


Aurten lana egitea tokatu zait, baina hamar egun dauzkat eta Galiziara joango naiz. Lanetik irteadakoz zerbait egin beharko dut, mendira joan edo ez dakit, beti dago zeozer.



Anastasio Ibarluzea
(Jubilatua)

Ahal dela ondo pasatu, inori kalterik egin barik.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Alkoholarekin
arazoak dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larnialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILERAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubilagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



24

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Mi chica" (7-9.30).
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

25

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Mi chica" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

26

• • •

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Mi chica" (5-7.30-10)
- Ferrerías kaleko jaiak: 8etan Etxafleru jaurtiketa, 12etan txistularien kalejira eta meza parrokiar, 12.30etan pintura-lehiaketa, 5etan haur jolasak, 7etan herri poteoa eta 9etan auzo afaria, gauean dantzaldia eta jolasak helduentzat.
- Cuba-rekiko elkartasun eguna, Askapenak antolatuta: Eguerdiko 12etan kalejira. 1etan manifestaldia eta ekintza politikoa Monterronen. 2.30etan herri-bazkaria eta ondoren jaialdia Monterronen, Fermin Balencia eta bikote kubatar batekin.

27

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Mi chica" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

28

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Mi chica" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

29

• • •

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

30

• • •

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

31

• • •

OSTIRALA

- San Inazio Eguna: Erromeria Kanpazarren.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

Deialdiak

• Bainuetxeetara

Bergararik, bainuetxe desberdinetara joan nahi dutenei dei egiten zaie, jakin eraziz ize-na emateko epea zabalik dela. Foru Aldundiak antolatzen duen bidai honetako asmoa 15 egun Zestoa, Fitero eta Arnedilloko bainuetxeetan pasatzea da. Prezioa 31.600 pezetatik 36.000 pezeta tartekoa da. Iraila eta abendua tartean txanda desberdinak antolatuko dira, 15 egun bertan pasatuko dira.



• Zikloturisten irteera

Datorren igandea 26an, zikloturisten irteera izango da, Aretxabaleta-Udana-Ormaiztegi-Segura-Zegama-Otzaurre-Narbaja-Aretxabaleta ibilbidea-ekin. Guztira 110 kilometro izango dira.

• Bekak

Begarako Udalak, Justo Garate Arriolaren omenez beka bat ematea erabaki du. Giza-zientzia alorrean ikertzaile gazteen artean ikerketa sustatzea da helburua. Ezaugarrien artean, euskaraz izan behar dela aipa daiteke, eta baita 11 hila-beteko iraupena duela eta diru zenbatekoa 935.000 pezetakoa izango dela ere. Beka jasotzeko beharrezkoa da Diplomatu edo maila bereko tituloduna izatea eta 35 urte baino gehiago izatea. Eskaera idatziak eta bestelako agiriak aurkezteko, irailaren 1tik 30era zabalik izango da epea.



Ferreras kaleko jaiak

Auzo-afaria ekintzarik aipagarriena

Igande honetan, Ferrerías Kalean bizi direnek urteroko jaietz gozatzeko aukera izango dute. Beti bezala, eguna zabaltzeko etxaleroak jaurtiko dira goizeko 8ak aldera eta eguerdiko 12etan, alde batetik txistularien kalejira eta bestetik urtean zehar kalean hildakoen aldeko meza, parrokian. Eguerdi partean pintura lehiaketa haurrentzat eta arratsaldean haurren jolasak, bonba japoniarrak, zaku lasterketa eta txokolatada ere izango da.

Haurrentzat prestatutako ekintzak alde batera utziz, 7etan ikurriña jarriko da, eta gero txistulariekin herri poteoa egingo. Ohi denez, poteatu eta gero afaltzera, gaueko 9ak aldera. Afalostean, betikoa, musika eta dantza egiteko aukera; gauerdian zaku lasterketa eta helduentzako jolasak. Horrenbestez bukatuko dira aurtengoz Ferrerías Kaleko jaiak.

Jaiak

• Kontzertua

Datorren ostegunean, 30ean kontzertua izango da Aretxabaletako Gaztetxean. Gaueko 11etan hasiko da eta Tenerifeko "Ataud Vacante" izango da gonbidatua.

• Rock kontzertua

Datorren igandean gaueko 9etan rock kontzertua izango da Gaztetxean. E.H. Sukarrak, Su Ta Gar eta Berlin-eko "Die Tesdiltesters" taldea izango dira

gonbidatuak. Aipatzekoa da Berlin-eko talde honetan 15 partaide direla eta gainera punk, rock, ska eta blues estiloko abestiak jotzen dituztela. Prezioa 350 pezetako izango da.



• **Kubaren aldeko eguna**
Datorren igandean, 26an, Kubaren aldeko eguna ospatuko da Arrasaten. Askapenak antolatzen duen egun honen bidez, geldiune ekonomikoaren kontra azaldu nahi da. Eguerdiko 12etan kalejira batekin hasiko dira ekintzak, 1etan manifestaldia izango da eta ondoren Monterronen ekitaldi politikoa izango da. Bertan Kubako kontsulak, Askapenako partaide batek eta Eva Forest idazleak hartuko dute parte. Eguerdiko 2.30etan herri bazkaria izango da eta interesatuok Irati, Sokoia eta Bionan har ditzakezue bazkarirako txartelak. Bukatzeko, Monterronen jaialdia izango da, Kubako bikote bat eta Fermin Balenciagarekin. Egunean zehar erakusketa bat izango da zabalik, eta gainera, hiru bidai zozketatuko dira.

Ikastaroak

• Kontsumoa

Begarako UNED-ek kontsumo ikastaroa antolatu du, datozen bi kurtsotan burutuko dena. Aurre matrikula egiteko eta izena emateko epea irailaren 1tik 20ra izango da zabalik. Prezioa 250.000 pezetakoa izango da eta ikasle kopurua mugatua izango da, 40koa. Titulua, Komertzio Sailak, Gazte-zko Turismo eta Kontsumo Eskolak eta UNED-ek emango dute.



“ Zaila ikusten dut autodeterminazioari eta Nafarroari buruzko lorpenik negoziazioan eskuratzea hartarako indarrrik ez zaigulako ikusten.

(...) Gauza asko lortu da azken hogeitamar urtean. Euskal Herria azken arnasan zegoen eta gaur ezin indartsu dabilenik esan, baina ibili dabilela bai. Eta hau, neurri haundi baten ezker abertzalearen burruka mota guztiei esker.

(...) Seguru asko preso guztien kaleratze duina lortzeko ere esku ezkerrez gain ekintza bortitzak (hobe oker banengo) beharko dira. Baina gero, beharbada, atsedentxo bat hartzeko momentua izango da. Sugeak ere badaki negua datorrenean harripean gordetzen. Jaioko dira berriak”.

(Juan Martin Elexpuruk Egunkarian)

“ Zer adierazi da Fagor Taldearen Batzar Orokorretako bozketetan? Kooperatibisten gehiengoak ez dituela zuzendariak berdintzat hartzen, eurak esplotatzeko dauden agente gisa baizik, soldatetan gero eta bereizketa handiagoa lortzeagatik burrukan egiten dutenak (beste maila batzutan ere oso bereiztuta daude dagoeneko); kooperatibisten gehiengoa ondo ohartu dela berdintasuna, solidaritza eta antzeko printzipioak Kontseilu Sozialak berak ere ez dituela kontutan hartzen, langileei ahalegin bereziak eskatzeko izan ezik.

(...) Kooperatibetako talde zuzentzailea beti izan da oso pragmatikoa, baina ez du mespretxatu ideologia kooperatibista jakin baten zeregin kohesionatzailea. Guztiz bestela, landu egin du. Efikazia ote da kooperatibetako krisi ideologikoren hutsunea beteko duen identitate berria? Uste dut ez dituela hain zeregin handirako baldintzak betetzen, izan ere zuzendarien kupularentzat eraginkor ematen duena badirudi ez dela kooperatibako baseentzat”.

(Inaki Uribarrik Hika aldizkarian)

Zer esango zenuke Udalekuei buruz?



Badira bost urte AE Dko Udalekuen formula majikoa martxan jarri zela.

Formula “majikoa” esaterakoan, hainbat arrazoi aipatu daitezke hitz hau egiaztatzeko balio dutenak.

Neska-mutikoentzat, abentura nahia, lagunartea, lasaitasuna eta egonezina asetzeko primerakoa.

Begiraleentzat, esperientzia, ardua, talde lana eta umekiko goxotasuna bizi ahal izateko eta dastatzeko ezinhobea.

Gurasoentzat berriz, “no coment”!!

Eguraldiak ere, esan daiteke gure alde apostu egin duela eta honi esker Arrasateko inguru guztiak Udalekuetako hurrez eta begiralez beteta ikusi daitezke txapel txuri-beltzak ezaugarri dituztelarik.

Majiarekin jarraituta, esan behar, kopazko sonbrotik gero eta ume berri gehiago agertzen direla eta behin probatzen dutenei, hurrengo urteetan errepikatzeko “gogo” eragiten diela.

Efektu horiei esker, aurtun, urte olinpiko honetan, geuk ere iazko record-a gaintu egin dugu eta gogoz beteta utzi gaitu, kurtsoan zehar ekipoa indartuz, datorren urteko “lehian” markak hobetzeko.

Bistan dago, aurtun izan dugun 650 umetako eta 65 begiraleetako ekipoz, edozein marka hautsi daitekeela eta gainera euskaraz.



URRI URIZAR,

AEDKO UDALEKUAK-ETAKO ARDURADUNA.

LORAMENDI



BIROLAK



• OINETAKOAK • CAMPING-a • HONDARTZA • MENDIA • TENISA •

Oñati

• Etxebizitza pribatuen-
zako politikaren frakasua

Udaletxeak, proiektu berri baten bidez, etxebizitzaren alokailua egitean tartekari izatea nahi izan du, jabeen eta bizi izaten sartzen direnen eskubideak defendatzeko helburua nagusia izanik. Hala ere, orain arte pisuen jabe bat ere ez da azaldu Udaletxeko bulegoetan tramite honen eske. Oñatiko erdigunean 600 pisu daude hutsik eta jabeek ez dute alokatzerik nahi, nahiz eta batzutan diru kopuru eder baten truke izan. Esperientzia berri honen inguruan beste herri batzuetako Udalek ere agertu dute interesa. Beharrezko ikerketak egin ondoren esperientzia bertan martxan jartzeko asmoa agertu dute.



Aretxabaleta

• Andramari jaiak

Abuztuko 14, 15, 16 eta 17an Aretxabaletako jaiak ospatuko dira zerbait aurreratzekotan. Ostiralean bolo txapelketa izango da gaueko 11etan sari ederrekin: 10.000 pezeta lehena, 8.000, 6.000 eta abar hurrengo postutan gertatzen direnentzako. Horretaz gain, larunbatean Zumaiako Bandaren kontzertua izango da eguerdiko 1etan. Igandean txirrindularitza, lehengo eta bigarren mailako afizionatuentzako eta 54. Itzulia Lenitz Bailerari. Astelehenean sokamuturra, herri bazkaria, dantzaldia eta abar izango dira. Hauetatuz gain, beste ekintza asko izango da.

Bergara

• Udaletxea hobetzeko proiektua

Datorren astean izango den gobernu Batzordean Udaletxea hobetzeko proiektu berria aztertuko da. Bertan puntu batzuk aipatzen dira batez ere: barruko antolaketa berikustea, goiko solairuan gela berriak egitea, beheko eta goiko partea lotuko dituen eskilera bat jaretzea... Hobekuntza horiek aurrekontuaren kopurua gehitzen dute.



Arrasateko Ingurugiro Eskolan prestatzeko

LANKIDETZA-BEKA BATERAKO DEIALDIA

Helburua

Bekadunari, Arrasateko Ingurugiro Eskolan lankidetzan arituz, ingurugiro gaietan prestatu dadin aukera ematea da.

Eskabideetarako epea eta helbidea

Eskabideak irailaren 7a arte aurkeztu daitezke Udaleko Hezkuntza Sailean

Deialdiaren oinarriak jasotzeko.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailean, uztailaren 22tik aurrera.

■ Hauteskunde zerrendak

Aurtengo ekainaren 1etik 15era Hauteskunde zerrendetan izandako erreklamazioekin, zerrenda berriak jarri dira jende aurrean datorren 29arte. Erreklamazioak idazkaritzako bulegoetan egin daitezke, astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik eguerdiko 13.30etara.

■ Ekaineko Gurutze Gorriaren balantzea

Deba Garaiko Gurutze Gorrikoek emandako datuen arabera, erakunde honek ekainean 21 trafikoko istriputan eskaini zuen laguntza bailada osoan, 6 Arrasaten. Trafikoko istripuez gain, anbulantziei deitzeko arrazoirik aipagarrienak lan istripuak, premiazko lekualdatzeak eta zerbitzu bereziak izan dira. San Prudentzian dauden hiru anbulantzia eta erreskate unitatearen artean 223 irteera eta 5851 kilometro egin dituzte. Trasladatutako pertsonak 63 izan dira, 41 arinki zaurituak, 21 larri eta 1 hilda.

ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

Jon Etxeberria Lizarralde, uztailaren 10ean.
Mikel Garcia Sentenac, 14ean.
Leire Mentxaka Roa, 14ean.
Elene Arriola Uribarren, 16an.
Garazi Sagasta Urrutia, 18an.

ZORONAK EZKONBERRIEI


Juan Maria Zabalo Laren & Francisca Caballero Portalo. Uztailaren 11n. Elizaz.
Juan Francisco Garcia Medrano & Rosa Mari Amutxastegi Gonzalez. 11n. Elizaz.
Jon Ander Arriola Lazkano & Esther Gutierrez Bereziibar. 11n. Elizaz.
Francisco Javier Aranegi Bedia & M^a de los Angeles Vitoria Mateo Gutierrez. 18an. Zibilez.
Esteban Lasaga Heriz & M^a Natividad Mendizabal Herrarte. 18an. Zibilez.
Felix Salamanca Garikano & Eskarne Garitaonandia Guridi. 18an. Zibilez.
Jose Antonio de Luis Carracedo & M^a Eugenia Herranz Alvarez. 18an. Elizaz.
Jose Manuel Vela Blazquez & Susana Tarragona Castro. 18an. Elizaz.
Jose Manuel Mujika Pereira & Ana Jesus Iturbe Munarriz. 18an. Elizaz.
Jose Fernando Unanue Biguri & Carmen Fernandez Manchado. 19an. Elizaz.

Txandaka

OPORREN AURRETIKO AHOLKUAK

Udako oporrak direla eta etxebizitzatik alde egingo dutenei, ohar batzu jarri nahi dizkiegu:

- Lehenengoz, eta etxebizitza hutsik egongo denez, ez egin inoren aurrean bidaiari buruzko azalpenik.
- Eskutitzak eguneroko jasotzeko eta lehiosareak mugitzeko, norbait etxean dagoela adieraziz, pertsonaren bat izendatu.
- Bidaian ondorengo neurriak egiaztatu:
- Kotxeak argiak, frenoak eta gurgilak.
- Frenoen ixurkia, olioak, hozgari ixurkia eta aurreko kristala garbitzeko ura nola dauden begiratu.
- Atsedena hartu ondoren, ez ugari jan ezta alkohol edaririk ere hartu. Aropa erosoak erabili gidatzeko.
- Kontuz kotxean jarriko duzun pisuarekin, ondo banandu fardelak eta ez diezazutela kendu ez ikus-



Anton Egia (*)

penik ezta orekarik ere.

- Kotxearen atzekaldean zerbait eraman behar baduzu (bizkletak, karroa...), ez diezazula ikuspenik kendu ezta matrikularik estali ere.
- Bete itzazu bi-deetako ikurren eta ertzain zein polizia-

esanak.

- Eraman ezazu bidemapa derigorrezko aldaketaren bat beharra gertatuz gero, bigarren mailako bideak erabiltzen jakin dezazun.
 - Ez ezazu ibilaldi luzerik egin atsedetik gabe, bi orduero atsedena hartzea da egokia.
 - Bidaian zoazen artean ez alkoholik edan ezta eragingarrikerik hartu ere, haien ondorioak igaroz gero ahalmena gutxitu egiten da eta, hobe duzu atsedena hartu.
- Azkenik opor zorionsuak izan ditzazuela. Eta ez ahaztu ohar hauek itzultzerakoan ere.

(*) ERTZAINDEGIKO NAGUSIA



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
 Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aukiak


NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Gurea eraikuntza, irailean dagoeneko lurtean egongo da.

Udalak MCM erosi 200 milioitan

INEM eta Lantegi Eskola joango dira bertan

Joan den asteko plenoan hartutako akordioaren arabera, Udalak MCMko lantegi zaharra erosi du, 200 milioi PTA ordaindu eta gero. Behin erositakoan, eraikuntzak dituen 3.700 metro karratuetatik, 500 metro karratu INEM-entzat izango dira eta gainontzeko 3.200 metro karratuak Deba Garaiko Udal Elkartearentzat. INEM-ek emplegu bulego berria prestatzen 55 milioitako inbertsioa egingo du MCMko eraikuntza zaharrean; Mankomunitateak berriz, erosketaren bidez, Deba Garaiko Lantegi Eskolak lanean iharduteko tokia izatea ziurtatuko du. Euskal Ezkerrako Aitor Orobengoa izan ezik, gainontzeko zinegotziek begi onez ikusi zuten eraikuntza zahar honen erosketa; Orobengoaren ustez, garestiegia zen.

Eraikuntza zahar horren etorkizuna erabaki zen bezala, Gurea zinekoa botatzea ere onartu zen. Urte bete pasa da auzotarrek Gurea zineko eraikuntzaren

egoera eskasa zela eta Udalaren aurrean salaketa aurkeztu zutenetik. Hirigintza batzordeak gaia aztertu eta adierazi zuen eraikuntzaren barne-egitura txarto egoteaz gain, osasun baldintzak txarrak direla eta instalakuntza elektrikoa gaizki dagoela. Gauzak horrela, hamar milioi ordainduta, abuztuan botako da Gurea zineko eraikuntza eta, momentuz behintzat, aparkalekua jarriko da bertan.

Hirigintza gaiak alde batera, plenoan Diputazioarekin giza-zerbitzuei buruzko hitzarmena sinatzeko proposamena onartu zen eta AUKEAko zuzendaritza batzordeko partaide berriak izendatu ziren: Jose Maria Balanzategi, Javier Castillo eta Andoni Villar.

Azkenik, aipatu behar da hilaren 27an, arratsaldeko 4etan ezohizko pleno berezia burutuko dela, Larrea kooperatibak Gorostizan egin beharreko lur jabegabetzeaz.

Usteak uste

Kaixo, aspaldiko! Ondo? Non zabilta baina...? Urteak ikusi gabe!" agurtu ninduen Maalako batek ogia erostean.

"Ba, ondo, ... hemen gabiltz... egun batzuk pasatzen... hamaika hilabete..." erantzun nion dagoeneko ohiturazko formularekin.

Hamaika hilabete horiek bukatzera doaz eta zorionezko abuztua gainean daukagu. Ordua zen!

Burura datozkit duela 30 urteetako oporrak. "Hamabostaldi euskalduna" deitzen genien egun haiei, hemen bertan jaiotako jendea bakarrik gelditzen bait zen herrian. Garibai edo Biterin eseri eta autobusen martxa ikustea... hura bai ikuskizuna!

Aipatu bezala hemengook hemen gelditzen ginen, ez orain bezala.

Irten? Hortaz ez dago Arrasateko bezalako herririk. Aretxabaleta litzateke behar bada, baina Andramarixak direla eta... atzean gelditzen da.

Nahiko da, adibide gisa, aldamenean dugun jendeari galdetuz gero aurkitzen duguna. Hori egin dut lankideekin eta begira: Bata Mediterraneo aldera senarrari gustatzen zaiolako, bestea Asturiaseko kamping batera oso naturala dela eta, hirugarrena Kanadara joateko prest, eta laugarrena nere bihotzeko Bakedanora... zerbait ospatzen duela eta, badago bostgarren bat Thailandiara joateko dena... Hau da hau!

"Onena etxean gelditzea" esan zidan aramaixotar batek. "Gainera, Arrasate irteera onenak dituen herria da..." "Eta hori?" galdetu nion. "Bai, Arrasatek irten eta edozein lekura joanez gero, beti irabazi egiten delako" izan zen bere azken zartada.

Ondo pasa!

J. R. ELORTZA

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24

ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

Urribarriko jubilatuen tabernarako aukeraketa

Udalak, Urribarriko jubilatuen etxe-kotabarnaren ustiaketa eskubidea adjudikatzen lehiaketa publikorako deia egin du. Tabernaz arduratu nahi duenak, uztailaren 29a arte proposamenak aurkezteko aukera izango du.

Ur eta zabor-tasa


1992ko 2. hiruhilabeteko ur eta zabor-tasaren ordainagiriak, irailaren 30a arte ordaindu daitezke borondatezko epean. Epe hori pasa ondoren, ordaindu ez dutenei %20a gehiago kobratuko zaie.

Iraileko Udalekutxoak

Orain arte Ikastola arduratu bada ere, aurten Iraileko Udalekutxoetan parte hartuko duten 5, 6 eta 7 urtetako haurrez AEDko begiraleak arduratuko dira. Udalekutxoak irailaren 7tik 18ra izango dira eta matrikula eta informazio gehiago AEDn, irailaren 1etik 3ra.

Kepa Urrea, gose-greban

Puerto de Santamaria Ilko espetxean dauden beste hamar euskal presoekin batera, Kepa Urrea atxabaltarra giza-eskubideen defentsan aurrera daramaten gose-greban hemeretzigarren eguna bete du gaur. Gose-greba honen aurretik beste bat ere egin zuten, baina zuzendaritzak egiten zituzten eskakizunak beteko zituela adierazi zuenez, utzi egin zuten. Agindutakoa betetzen ez zenez, berriz gose-grebari ekin zioten.



Gas naturalaren eskacra edozein herritarrek edo auzo komunitateek egin dezakete.

Gas naturala laster Musakolan

Erabiltzaileak 1475 dira Arrasaten

Gas Naturalaren erabiltzaileak 1.475 dira dagoeneko Arrasaten eta datorren iraila edo urrian Musakola auzoan sartuko dute, Grupo San Juanetik pasaz eta Udalarekin harremanetan egon ondoren, Kiroldegian ere gas naturala jarriko da. Datorren negurako hornikuntza martxan jarriko dela espero da, Naturgaseko Jabier Escabelek aditzera eman digunez. Orain arte 7.796 metroko sarea dago Arrasaten zehar zabalduz. Dagoeneko etxean gasa dutenena baino handiagoa da instalazioa erositaina baina oraindik zerbitzuan jarri ba-

rik dutenena, 2.031 guztira.

Gas naturalaren instalakuntza egiteko 125.000 eta 130.000 PTA inguruko kopurua aipatzen da, propano edo butanozko ekipoa aldatu eta sukaldearen bentilazio baldintzak aldatzearen artean, eta prezioaren aldetik berogailutarako erabiltzen ez bada, 62,28 PTAkoa da m³ko eta hilean 325 PTAko fijoia, berogailutarako erabiliz gero hileroko fijoia garestitu egiten da eta 52,45 PTA/m³.

Informazioa jasotzeko, telefono urdinera dei egin daiteke, 111121 zenbakira.

HUETO Doktorea
Eztarria, sudurra, belarriak
 Ordua eskatzeko: 79 81 11
 79 81 00
 Olarte kalea, 43 Arrasate

ARRASATE PRESS

77 05 65

I R A T I
T A B E R N A
 Ferrerías kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 71 80

E · S · T · U · D · I · O
I N T E R I O R I S M O A
 • Dekorazio proiektuak
 • Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
 • Gremioetako ekipo osoa
 • Diseinu orokorra
 Garibai, 3 bis
 ARRASATE
 Tfnoa: 77 01 44

Izen
PROPIOAK

● **Jose Maria Balanzategi** Arrasate Saskibaloitaldeko ordezkaria, **Javier Castillo** Arrasate Atletismo taldeko ordezkaria eta **Andoni Villar** Besaide Mendizale Elkarteko ordezkaria dira AUKEAko Zuzendaritza Batzordeko partaide berriak.

● **Kepa Oleden** 27 urteko atxabaltarrak eta **Itziar Sanpedro** 26 urteko arrasatearrak, bakoitzak bere kategorian, bostgarren eta laugarren postuak lortu zituzten "Ondarroako trabiesa" izeneko igeriketa proban. Ia ehun lagunek hartu zuten parte 1.800 metrotako proba honetan. Aipatutako bi igerilariak orain Getaria-Zarautz trabiesia prestatzen ari dira, 2.500 metrotakoa.

● Hamabi orduko igeriketa proban **Mari Sanchez** eta **Julen Garcia** izan ziren igerilaririk aipagarrienak, neskak 3.200 metro egin zituen eta mutilak, berriz, 2.800.



▲ **Xabin Arrieta** eta **Juli Berezibarek**, urrezko eztaiak ospatu zituzten pasa den ostegunean. Anai-arreba, seme-alaba, biloba eta lagun asko bildu zen eurekin. Parrokian meza izan ondoren bazkariarekin ospatu zuten eguna. Argazki honetan, ospakizunera hurbildu ziren guztiak bildu nahi izan ditugu.



◀ **Lantegi Eskolak** aurtengo ikasturteari amaiera emateko jai bat antolatu zuen pasa den ostiralean. Hainbat ekintza izan ziren bertan, jokuak eta abar. Argazkian azken ekitaldia: "Izenik gabe" taldearen kontzertua.



DANIKAIR'T
Estetika eta Ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua
Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Kabia altzariak


Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



Aste honetan hasi da Udalan **Auzolandegien bigarren txanda**. Bertan 9 neska eta 7 mutil daude, bi euskaldunak. Datu kurioso bezala, aipagarria da Gazteiz-en bizi den arrasatear bat ere bertan dagoela, Jabier Rodriguez. Argazkian taldearen argazkia dugu eta ikusten denez patxaraz daude, goizez lan egin ondoren arratsaldea pasiatu eta deskantsatzeko erabiltzen bait dute.



Pasa den asteazkenean **Maalako jaiak** ospatu ziren. Bertan ekitaldi asko izan ziren baina argazki honetan umeak ditugu protagonista. Arratsaldeko 4etan umeen jolasak izan ziren eta ikusten denez giro ezin hobean. Argazkian zaku-lasterketa.



Egin zutenetik denbora asko pasa bada ere, dagoeneko **Correos**-etako lokal berria irekita dago **Otalora kalean**. Egia esan, aldaketa komenigarria zen, zaharra ez zen bat ere itxurosoa eta, gainera berrian erosotasuna eta zerbitzu modernoagoak eskaintzen dira.



Epelde

Joseba Berezibar eta **Virginia Armentia** ekainaren 13an ezkondu ziren. Zoriontsu izatea opa dizuegu! ▶

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32



Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

92-93 IKASTURTEA

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

**Matrikula irekita
Hurbil zaitez gure bulegoetara.**

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara



AMETS TAILERRAK


HERGO karabanen banatzailea

SALMENTA ETA ALOKAIRUA

- Karabanak
- Autokarabanak
- Mota guzietako erremolkeak
- Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu

Berezano auzoa. OÑATI
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

92ko Uda 21aren Uda duzu Euskadin.



Orain zure Renault 21ak, Aire Girotua edo pareko eskaintza, prezio berean.

Renault 21aren gamak eskaintza pertsonalizatua eta ekipamendu zabaleko abantaila guztiei, aire girotua gehitzen zaie orain, edo pareko eskaintza bat bestela, edozein bertsioetan eta prezio berean.

Udaberritik udazkenera bidaia dezazun, udako nekeak pasa gabe. Eta oraindik gauza freskoagoa nahi baduzu, zatoz Renault 21 Broker


Berriaren ekipamendu harrigarria ikustera.

RENAULT 21. Heldu aukera honi. Ez airean utzi!

Renault 21

Hilabete bukaerara arteko promozioa, stock-ean dauden ibilgailuentzat.

Bizi ezazu:


RENAULT

MECA, S.A.
Araba Etorbidea z/g. ARRASATE

MUGA GUZTIEN GAINETIK


LABURPENA:

Alberto, Xanti lankidearen emazteaz maite-mindu da. Baina, gauzak ez nahaste arren Miren ez ikustea erabaki du. Kasualitatez, Xantik amorantea duela deskubritzen du, eta amorante hori mutila dela...

4.
atala

MIRENEKIN EGON BEHAR DU. AGIAN GAUZAK ALDATU EGIN DAITEZKE!

Miren? Bai, aspaldiko Alberto naiz. Zurekin egon behar dut, gaur bertan.



Miren, ez dizut minik eman nahi, baina, Xanti homosexuala da. Nerekin ikusi nuen!

Zer?



Hirian ikusi nuen mutil gazte batekin. Liatuta daude, ziur nago! Bidea libre daukagu, Miren!



MIREN ISILIK GELDITU DA, BAINA EZ DIRUDI SUSTO HANDIRIK HARTU DUENIK.



Xanti ez da homosexuala. Banekien gizakumeak ere gustatzen zaizkiola, baina oraingo hau ez nekien. Berarekin hitzegin beharko dut.


Baina zuri dagokizunez, alferrikari zara. Ni ez naiz noiznahi utzi eta noiznahi hartu daitekeen zeozer. Pertsonen sentimenduekin ez jolasten ikasi beharko duzu.







Baina, Miren... nola esan dezakezu hori? Maitatzen zintudalako urrundu nintzen zugandik!

MIRENEK BADU ARAZO BAT ARGITZEKO BESTE EZER BAINO LEHEN.



Bai, egia da. Mutil batekin ibili naiz bolada batean. Aproba egin nahi nuen.



Badakizu nire berri, Miren. Ez dut "beste" alde hori inoiz erreprimitu nahi izan. Baina, zu maite zaitut beste emakume eta gizakumeen gainetik.




Badakit zu ere Albertorekin ibili zarela. Baina uste dut elkar maitatzen jarraitu dezakegula, bakoitzaren nortasuna errespetatuz. Zuk nahi baduzu behintzat!



Bai, Xanti. Ez dut uste gauzak gehiegi aldatu direnik.

HILABETEAk IGARo DIRA. ALBERTOREN KONTRATUA AMAITU EGIN DA ETA ALDE EGITEKO ORDUA IRITSI ZAIO.

Xanti eta Miren agurtzera joan beharko dut.




Kaixo, agur esatera nator.



ETA BADOA...



Asko ikasi dut zuengandik. Gauzak ez direla beti beltzak edo txuriak izaten, tartekoak ere badaudela eta pertsonen sentimenduak muga guztien gainetik daudela. Mila esker bñoi!



ETORRI ZEN BEZALA. BAKARRIK, BAKAR BAKARRIK...



AMAIERA

Izaskun Zubizarreta

**Biolina,
gozamen eta
lanbide**



Izaskun Zubizarreta mondragoetarra da, Musakolakoa. Herritarrek ez dute asko ikusiko, azken lau urte hauetan Bartzelona aldean dabilenez. Musika ikastera joan eta musikaren inguruan antolatu du bizitza eta erabat Kataluniar eginda dago, euskaraz ere katalan azentua izateraino.

—Ze ikasketa ari zara egiten Bartzelonan?

—Hasieran biolina ikastera joan nintzen eta gero ikastearekin batera klase batzuk ematen ere hasi nintzen. Orain biolineko zortzigarren maila egiten ari naiz eta titulu hori lortutakoan beste bi egin daitezke goi mailakoa ateratzeko. Gero konposizioarekin zerikusia duten gai batzuk ere egin ditut, kontrapuntua, kamarako musika... osagarri moduan.

—Eta lana?

—Denetik egin nuen hasieran. Gero orkestratan jotzen hasi nintzen eta aurten asko egin dut horretatik. Telebistan play-back eta antzerakoak. Aurten Orkestra de Cámara Catalanan sartu naiz eta musika klasikotik aparte, folk talde baten nago, Tradivarius izeneko folk talde katalan baten eta orain diska grabatu behar dugu. Orain hilabete batzuk talde ingeles batekin grabatzen ibili nintzen eta laster kontzertuak ditugu Ingalaterran.

—Noiz erabaki zenuen musikara dedikatzea?

—UBI amaitu nuenean ez nuen batere garbi zer ikasi eta Ingalaterrara joan nintzen eta berdin etorri nintzen. Txikitatik biolinarekin hasita, Arrasate Musikalena irakasle poloniar bat izan nuen, asko kritikatzan zuten arren, niretzat oso ona izan zena eta berarekin hasi nin-

tzen apur bat gozetan. Hasieran badakizu, hamaika urterekin gurasoek biolina erosi eta pasiatu besterik ez da egiten.

—Musikatik bizi izaterik badago?

—Bai, baina non eta musikatik zer lortu nahi duzun ikusi behar da. Nik uste dut bizi daitekeela, baina ez gu ohituta gauden bezala. Normalean, klaseak ematetik ez bada, ez da segururik izaten, abuztuan lanik eginez ean ez dago dirurik, ez dago paga doberik... "Ia hilabete honetan zer gertatzen den", pentsatuz bizi zara. Ordutegi

mailan guztiz alderantziz, udan eta asteburutan egiten da lan, gainontzeko jendeak ez bezala. Ez dakit, zela bizi nahi duzun begiratu behar.

—Orain zer da biolina zuretzat?

—Ez dakit, nire zati bat... izan daiteke. Asko lagundu dit biolinak, izugarri. Sekula ez nuen uste hainbeste maite izango nuenik eta uste dut musikak orokorrean asko lagundu didala, espresatzeko orduan. Orain bi urte, esamin bat nuen eta etxean ikasten nengibela biolina jausi eta tapa ireki zitzaidan. Duxara sartu eta tonta baten

pare negarrez hasi nintzen. Sekula ez nuen esango neure burua horrela ikusiko nuenik. Musiko bakoitzak bere instrumentuari maitasun berezia dio eta mimatu egiten du, azkenean berarekin lortzen du eta jatea, espresatzea eta pertsona moduan ondo egotea. Bestela norbere buruaren kontra joatea da.

—Aurrera begira zer?

—Ez dakit. Oraingoan han nago baina ezin dut esan bihar edo etzi itzuliko ez naitzenik. Hau asko gustatzen zait eta gauza on pila bat dauzka. Hala ere, momentu honetan ez nau betetzen hangoak bezala zentzu batzutan behintzat, eta lana niretzat oso inportantea da, lanean gustora egotea denean gustora egoteko. Bizi guztian akademian klaseak ematen egotea... ez dut ikusten neure burua. Sarritan pentsatzen dut hemen talde bat sortzea ere badagoela, baina jendea ez dago horretarako kontzientziatuta, musikatik bizi izatera eta ezta kontzertuetara joatera ere.

—Arrasate musika aldetik, zelan ikusten duzu?

—Ez oso ondo. Alde batetik akademia izatea oso ondo dago baina horretan geratu da, jendea pozik dago eta orain hamar urteko bera da baina zorrek. Orkestran ere oso momentu onak izan dira baina tontokeriengatik behera joan da. Herria konformatu egin da eta ez da ahalegindu udarako ikastaroak antolatu eta jendeari alizientea ematen. Hemen kontzertu bat jotea norbere ama, bestearen izeba eta bestearen amona ikustea da, betikoak ikustea. Goikobalu sortu delako asko pozten naiz. Pena da, eta ez da inori errua botatzea, baina herriak ez du baloratu izan duena. Oraindik egin daitezke gauza onak.

“
Arrasateko herria konformatu egin da musika mailan duenarekin”

Oporretan 'herria zaintzen'

Nora zoaz oporretan? Hori da uztaileko azken aste honetan kalean entzuten den galdera. Mendira, Expora, atzerrira, toki exotikoetara, Irletara, edo betiko apartamentura, beti hain apreziatua den eguzkiaren bila. Hala ere, beti esan ohi den bezala, badira batzuk 'herria zaintzen' geratzen direnak. Erreportai hau eurei eskaini nahi izan diegu, izango dituzten aukera desberdinak azaldu nahian, bakoitzak ondoen datorkiona erabaki dezan.

Oporrak, abuztua, Arrasaten igarotzen dituztenek izango dituzte arrazoi ugari: diru falta, ohituragatik, lanagatik edo beharbada oporrak beste hilabete batean izango dituztelako. Urtean zehar enpresetan lanean dabilen jendeak normalean oporrak abuztuan izaten dituzenez, kanpora irteteko aprobetxatzen du, bai familiarekin bai lagunekin. Baina hala ere, horietatik batzuk ere bertan geratzen dira, arrazoi desberdinak direla medio.

Kale hutsak

Abuztuko edozein egunetan kalera irteten baduzu, seguruenik oso jende gutxiarekin egingo duzu topo. Etxeetara begiratu eta balkoietan inor ez, pertsiak jeitsita, zaratarik ez, ezta umeen oihurik ere. Denda guztiak itxita, kotxerik ez...

Baina ez pentsa denak alde txarrak direnik, bakoitzak ahal duen ondoen antolatzen ditu bere egunak, aukera asko daude eta bakoitzak egokiena aukeratzen du, askotan

helburua herritik irtetea izanik, oporretako usaina hartu nahian. Beste batzuk, aldiz, pakearen bila geratzen dira herrian, toki turistiko gehienetan dauden jende pilak

ebitatzeko.

Arrasateko hondartzak

Bai, baditugu Arrasaten hondartzaren papera betetzen duten tokiak edo behintzat egun eguzkitsu bat pasatzeko oso ondo balio dutenak. Arrasatetik irten nahi ez dutenentzat edo kotxerik hartu nahi ez dutenek, badituzte posibilitate batzuk: piztinara hurbilduz, bainu eder bat hartzeko aukera ere hor dago eta bertako zerbitzuak aprobetxatuz eguna pasatzea. Baina eguzkia hartzea edo piztinara joatea gustatzen ez bazaizue, zergatik ez pasiada bat? Urkulura, Etxezarretara, auzoetara, mendira edo inguruko edozein herritara joan zaitzke. Eta ez ahaztu gure herriko parkeak ere hor ditugula, Monterron eta Santa Barbarako zuhaitzek ematen duten kerizpea ez da mespretxatzeko gauza.

Kirola egitea gustatzen zaizuenentzat bizikletaz irten eta ibilbide ederrak egin daitzke eta gainera Uretako Klubetan uretako kirolak



Motxilia hartu eta eguna kanpoan pasa dezakezue

egiteko aukera ere hor duzue. Alde honetatik, nahiz eta kuota bat ordaindu behar izan, surf-a, uretako eskia, urpeko igeriketa eta beste hainbat ikasi eta praktika daitezke. Balio dezakete diru asko gastatu gabe uda zoragarri bat pasatzeko, kirol berriak ezagutzeko.

Herritik irten eta eguna kanpoan igarotzea nahi baduzu, kostaldeko edozein herritara jo dezakezu. Ez da beharrezkoa kanpora irtetea gauza berriak ikusteko, seguruena gutako askok ez ditu Euskadiko herri asko ezagutuko eta egun hauetan duzuen aukera ezin daiteke pasatzen utzi. Kotxea hartzeko asmoa baduzu, ordubeteko bidaiari itsasora hurbildu eta egun zoragarria pasa dezakezue.

Horretaz gain, hurbilago ere badaude tokiak: Albina, Legutioko pantanoa edo Landa. Kanping denda hartu eta astebukaera ere bertan pasa daiteke.

Herrietako jaiak

Abuztuan zehar inguruko herri gehienetan ospatzen dira jaiak eta halako egunetan ez da igartzen oporretako egunak direnik, jendez beteta egoten bait dira. Herrian geratzen direnak, gazteak eta ez hain gazteak, eskura dituzten jaiak ondo aprobetxatzen dituzte. Festaz festa ibiltzen diren kuadrilak ere badaude, eta animatzen bazarete kanping denda hartu eta beste herri



Landan eguzkia hartu eta uretan gustora pasatzeko aukera izango duzu



Musakolako pizina, hurbilen duzun aukera duzue

batzutako jaietara hurbiltzeko aukera duzue, jai egunak bertan igarotzeko. Esate baterako hona hemen hurrengo astetan datozen jai batzuk: Gazteizko Blankak, Bilbo eta Donostiako aste nagusiak, Deba, Ondarroa eta Getarian, Aretxabaletan eta baita Aramaioko Barajuen eta Uribarriko auzoetan ere. Beraz, aukeratu ezazu gustokoena

eta ondo pasatzeko beste guztia seguruena bertan aurkituko duzu.


Lagun berriak

Oporretan kanpora joan ezker, lagun berri asko egingo dituzu baina horretarako ez da beharrezkoa kanpora irtetea, herrian geratzen bazara ere baduzue

aukera lagun kuadrila berriak egiteko. Jende gutxi izango zaretenez bildu eta irteera eta antzerako gauzak antolatzeko aukera hor duzue. Horretatik pasa direnek kontatzen dutenaren arabera, oporretan herrian geratzen direnek kuadrila osatzen dute. Urtean zehar ezagutzen ez dituzunen lagun egin zaitezke abuztuan.

Ondo pasa!

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Aretxabaletako Udaletxean emandako prentsaurrekoa

Everest-a atxabaltarren zain


Uztailaren 31n Felix Iñurrategi, Alberto Iñurrategi eta Jose Ramon Zubizarretak Everest mendiko biderearen lehen pausuak egingo dituzte, San Inazio egunean Khatmanduruntz irtengo dute eta.

Joan den astean Aretxabaletako Udaletxean hiru mendizaleek espedizioaren aurkezpen ofiziala egin zuten, esanez Uztailaren 31n irten eta beheko kanpamendura abuztuaren 25a inguruan iristeko asmoa dutela. Tontorra lortzeko saioak, berriz, irailaren bukaera aldera egingo lituzkete eta gauzak ondo joanez

gero, urriaren bukaerarako berriz ere hemen leudeke.

Jakina denez, Iñurrategi anaiak eta Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarrak osatzen duten espedizioaren helburua, Everest-aren gailurrera oxigeno artifizial barik igotea da. Helburu hori gau-

zatu ahal izateko, taldeko partaideek mendietan gora daramaten progresioak zer ikusi handia izango du. Era berean, zer ikusia izango dute 6.150.000 PTako aurrekontua osatzen lagundu duten guztiek, kamisetak erosi dituztenek eta espedizioa diruz laguntzen duten etxe komertzialak.



◆ **12 ordutan 33.450 metro igerian**
Pasa den ostiraletik larunbatera bitartean Musakolako Kiroldegian lehen aldiz igeriketako 12 orduak burutu ziren. Egindako marka ez zen makala izan, 33.450 metro guztira, baina aipagarriena jendearen partaidetza izan zen, 77 igerilari bildu ziren bertan eta. Hamabi orduen arrakasta ikusi eta gero, aurrerago seguruen 24 ordutako proba antolatuko da.

◆ **Txirrintulari jubenilak berriz ondo**

Joan den asteburuan Dorletako Amataldeko jubenil mailako txirrintulariak, Astigarragan burututako proban garaienetik gertu ibili ziren, baina sprintean ezin izan zuten ezer egin. Lasterketa-iren irabazlea, ia astero bezala Jon Azkune izan zen eta denbora berean Josemi Elizburu eta Zigor Urain sartu ziren, bostgarren eta hamaikagarren postuetan. Horretaz gain, Ruben Cabero, Felix Zugasti, Iker Zugasti eta Aritz Altubek lasterketa bukatzea lortu zuten.

◆ **Josean Gayk agur Bartzelonari**

Josean Gay atleta arrasatearrak ezin izango du Bartzelonako Joko Olimpikoetan parte hartu, horretarako eskatzen zitzaion markarik ez du lortu eta. Gayren asmoa 4x400 errelebeko proban parte hartzea zen, eta taldean sartzetik oso gertu ibili bada ere, azkenean kanpoan geratu da.

◆ **Krosa gazteentzat**

Ferrerias kaleko jaietako egitarauaren barruan, beste kirol ekintza batzuren artean, zazpi eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoentzat kros lasterketa jarri dute. Proba igandean izango da, arratsaldeko 7etatik aurrera, Ferreriasen, noski!

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia

Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95

ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala diru-
laguntzak eskaintzen dizkie udako ikastaro trinkoetan euskara
ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak irailaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira.
Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

“Jokin Zaitegi” eta “Arrasate 92” literatur lehiaketak

Aurreko beste ale batzutan aurreratu dizuegun bezala badira literatur lehiaketa batzuk denboraz antolatu direnak. Oporrak direla eta baduzue oraindik gaia pentsatuz gero, lana burutzeko denbora. Horregatik daudenak laburtzea nahi izan dugu.

Alde batetik “Arrasate 92” lehiaketak izenekoa AEDk antolatzen du eta asmoa Arrasate eta eskualdeko euskal idazleen ekintza sustatzea da. Gazte eta heldu mailan izango dira eta hiru atal desberdinetan: poesia, ipuina eta bertso-papera. Parte hartzeko Deba Garaian bizi, lan egin edo ikastea da baldintza.

Literatur Lehiaketaz gain, komikia, argazkia, diapositiba eta bideo lehiaketa antolatu du. Komiki lehiaketan “Arrasateko modak” da. Argazki lehiaketakoa “Deba Garaiko gertaerak”, diapositiba lehiaketakoa “Natura,

IOKIN ZAITEGI

VI. Itzulpen laburren sariketa



AEDk antolatuta

Gipuzkoa
Donostia Kutxaren
eta
Arrasateko
Udalaren
laguntzarekin

Arrasate 92

desnatura” eta bideoan, azkenik, gai librean izango da. Lanak azaroaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira AEDn.

Bestalde “Jokin Zaitegi” lehiaketa, itzulpengintza sustatzeko asmoz AEDk Gipuzkoa-Donostia Kutxa eta Arrasateko Udalaren lagun-

ARRASATE 92

Lehiaketak

- Komikia
- Argazkia
- Diapositiba
- Bideoa

AEDk antolatuta eta UDEM-aren laguntzarekin

tzarekin antolatu du. Gaia “V. mendeurrena-Amerikaren aurkikuntza” izango da. Lehiaketara, munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkezteko aukera izango da, jatorrizko testuak 1989-1992 urteen artean argitaratua izan egin beharko duelarik. Luzera 12 orrialdetik 25era bitartekoa izan beharko da. Hauek ere azaroaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira AEDn. Lehen saria 250.000 pezetakoa izango da eta akzesitak 50.000 pezetakoak.

GOIKOBALU ABESBATZAK

5 TENORE

behar ditu Arrasateko bere egoitzarako

Baldintzak:

- 1) 18 eta 35 urte bitartekoak izatea.
- 2) Ahal dela solfeoko ezagutzak izatea.
- 3) Eskualdean bizi izatea.

Eskaintzen dena:

- 1) Plantilan sartzea.
- 2) Promozioarako aukerak.
- 3) Lan giro atsegina.
- 4) Gratifikazio ugari.

Informazioa eta eskaerak:

MIKEL ARREGI

GOIKOBALU abesbatza

Tfnoa: 79 18 19

Faxa: 79 27 66

• Txitxinpe •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33

ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

ARRASATE PRESS




77 05 65

◆ **Bergarako pintoreen erakusketa Ortonovon**

Irailaren 7arte Bergarako pintoreen erakusketa bat izango da Italiako Ortonovo hirian. Guztira 86 kuadro aurkeztuko dira bertan, estilo eta teknika guztiak tartekatuz: teknika figuristak, piktorikoak... Egileak datoren 31an izango dira Ortonovon erakusketa bertatik ikusteko. Bi herrien arteko elkartrukea da lortu nahi dena, bertatik talde ordezkarri bat ere etorriko bait da.

◆ **'Ekin Euskarari' Arrasaten**

Datorren irailaren 18tik 27ra bitartean *Ekin Euskarari* erakusketa ibiltaria Arrasaten izango da ikusgai. *Ekin Euskarari* erakusketa-ren helburua, euskara eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabili ahal izateko bide berri eta eraginkorrak eskaintzea da. Erakusketan idatzizko aurkezpen txiki bat, ordenadoreek linguistikari buruz emandako datuak eta gizarteko arlo desberdinei buruzko diapositibak ikusteko aukera izango da.



Karlos Oianguren

Urrezko eta zilarrezko bitxiak egiten

Arrasate eta inguruan bitxigile gutxi dugu eta hauetariko bat Karlos dugu. Urte batzuk ikasten igaro ditu eta orain harriak grabatzeko metodoak ere ikasten ari da.


— **Noiz eta zergatik aukeratu zenuen bitxigile lanbidea?**

— Beno, ikasten hasi baino lehen latoia grabatzu egiten nituen kuadro batzuk. Orain urte batzuk direla bitxigintza ikastaroa antolatu zuten Aretxabaletan eta bertan bi urtetan ikasi ondoren, Madrilen ere egon nintzen sei hilabetez. Orain Basaurin nabil harri bitxiak jartzen ikasten.

— **Ze motatako lanak egiten dituzu?**

— Zilarra eta urrea erabiltzen ditut batez be baina bezeroek eskatzen duenean beste materiale batzuk ere erabiltzen ditut: platinoa, urre zuria eta abar. Baina orohar niri gehien gustatzen zaidana zilarra da, nahiz eta urreak diru gehiago eman. Gainera, lana egiteko eta nahi dudana bezala moldeatzeko urrea da bigunena. Zilarrari mantxak geratzen zaizkio eta gogorragoa da.

— **Jendeak bitxi asko erosten dizu?**



— Generalean jende gazteentzako egiten dut lan eta urrezko gauzak izaten dira gustokoenak. Nik egiten ditudan gauzak komertzialak izaten dira, gauza txikiak eta ondo saltzen direnak. Gainera hasi nintzenean kaleko postuetan saltzen nuen eta denda batzutan ere uzten nituen bitxi batzuk. Hala ere, orain enkargu bidez egiten dut lan. Saltzeko

dagoen bide onena artesauen ferixetan da baina horretarako baimen bereziak behar izaten dira eta profesionala izatea beharrezkoa da.

— **Etokizunari begira hori izango litzateke ikusten duzun irtenbidea?**

— Ez dakit, beharbada denda txiki bat jartzea errazagoa ikusten dut. Inguruan ez dago antzerako dendarik, bertako bitxitegiak konponketak egiteko kanpora bidaltzen dituztelako materiale denak eta artisaun mailan beste bi edo hiru daudela uste dut, ez dago konpetentzia handirik. Nik inguruko dendetan eta lagunaren lokaletan erosten dut zilarra eta beste materiale guztia, euki dezakedan konpetentzia kanpotik ekartzen dituzten materialekin egindako produktuen aurrean da, Bali eta antzerako lekuetatik, horrek asko merketzen du azken produktua.

— **Azken produktua lortzeko ze prozesu jarraitzen duzu?**

— Dena neuk egiten dut. Etxean ditudan makina batzuen bidez, fundizioa, laminazioa, trefilazioa, moztu eta ondoren bakoitzari forma egokiena ematen diot.

“Arrasaten ez dago bitxiak lantzen dakien ia inor”

SLIMMING EMAKUMEEN GIMNASIOA

ESKAINTZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala

Arreta pertsonalizatua.

Deitu arratsalde 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE

Aste gazte


"Gaztaroen alde guztietako minak jasaten ditugu: batetik gorputzarenak, gorputza azkarregi hazten delako; bestetik arimarenak, arima geldiegi hazten bait da".

"El buque fantasma" liburutik.

Bekak

- Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundeko Itzulpen-Zerbitzu Ofizialean lankidetzan iharduteko bekak. Eskatzaileak: unibertsitate-lizentziadun eta diplomadunak, lizentziaturako azken urtea egiten ari direnak eta ALAIEko ikasketak burutu dituztenak. Iraupena: 9 hilabete. Dirulaguntza: 1.161.000 PTA. Epea: Abuztuak 6.

- Arrasateko Ingurugiro Eskolan prestatzeko lankidetzak. Bekadunak ingurugiro gaietan prestatzeko aukera izango du. Eskabidea egiteko epea: irailaren 7ra arte.



- Hazienda publikoan masterra egiteko bekak. Eskatzaileak: unibertsitate-lizentziatua izatea (ekonomi arloan bada, hobe), ingeles hizkuntzaren ezagupenak. Epea: irailak 15.

Masterra kontsumoan

- Masterra Kontsumoan Bergarako UNED eta Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Sailak antolatua. 92-94 ikasturteetan zehar garatuko den master hau lizentziatu, diplomatu eta kontsumo arloan esperiadunei zuzenduta dago. Matrikula-prezioa: 250.000 PTA ikasturteko. Aurreinskripzio-epea: irailak 1-20.

Lanpostu-deialdiak

- Eusko Kirol Institutoak (IVEF) 15 irakasle kontrata-

tzeko deialdia egin du. Titulazioa: lizentziatura. Baseak: 92-07-07ko EHAAn. Epea: uztailak 27.

Musika

- Donostiako 53. Musika Hamabostaldia: abuztuak 3-irailak 1. Kontzertuak, zine musikala, balleta, euskal dantzak, opera, ihardunaldiak, interprete gazteen zikloa, antzinako musika zikloa....

Donostirako autobusak

- Aurten ere zenbait ikasle animatu da Donostiako Fakultateetara egunero joateko autobusa antolatzerara (iaz ere saiatu zen baina ez zen talderik osatu). Interesa duzenok dei ezazue: 79 17 72 (Bittor) edo 76 51 75 (Ainhoa).

Arteleku

- Serigrafia Tailerra. Arduraduna: Pepe Albacete. Iraupena: irailak 1-urriak 31, ordutegi trinkoa. Inskripzio-epea: abuztuak 21. Matrikula: 34.000 PTA.

Lehiaketak

- "Belaunaldi Gaztea" III. Argazki-Lehiaketa, Arrasateko Udalak antolatua. Zuribeltzean nahiz koloretan. Sariak: 60.000, 40.000, 30.000 eta 20.000 PTAko akzesit bat. Epea: urriak 2.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE
PRESS



77 05 65

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
 - * Estimulazio goiztiarra
 - * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
 - * Logopedia
 - * Laguntza terapia
 - * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

ETXEBIZITZAK

- Urte baterako pisua alokatu nahi dugu. Deiegin Getatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko, bere gela edukiko luke. Pasatu eguardian edo gauzez Munarreko Aragoi kaleko 4, 5. eskumatik.
- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Abuztuan Lloret de Mar-en etxebizitza alokatzeko dago. Tfnoa: 79 75 67.
- Zarautz. Etxebizitza alokatzen da. Sukaldea, 5 logela, 2 bainugela, egongela eta terraza. Erdikaldean eta hondartzatik 100 metrotara. Uztaila, abuztua eta iraila. Tfnoak: 79 23 97, 13 28 49 edo 69 15 52.
- Abuztuan etxebizitza alokatzen da Amaran (Donostian). Tfnoak: 79 66 01 eta 77 04 32.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasurterako lekurik baldin baduzu, dei eguerdian 79 97 69 tfnora.
- Irailean Ezkaraien etxebizitza alokatzeko dago. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 31 56.
- Irailetik aurrera Arrasateko familia baten bizilekua behar du ikasle batek, jatordu eta guzti. Tfnoa: 72 55 49.
- Deustu inguruan pisu baten lekua behar dut. Tfnoa: 79 34 58. Aitor.
- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23.

LANA

- Zortzigarren mailara arte edo, euskarazko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 39 23.
- Esperientziadun neska abuztuan harategian edo urdaitegian lan egiteko prest. Dei egin 3ak aurretik 79 97 52 tfnora.

- Zientzietako klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 25 37.
- Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak. Abuztuan ere bai. Tfnoa: 77 13 95.
- Andra euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 37 68.
- Ekonomiako klase partikularrak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.
- Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tfnoa: 72 39 73.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHoko klase partikularrak irailan. Tfnoa: 79 34 58.
- Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest. Uda osoan herrian egongo naiz. Tfnoa: 79 98 30.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska bat behar da. Euskaraz badaki, hobeto. Tfnoa: 79 89 32.
- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- Neska edo emakume euskalduna behar da Gasteizen ume bat zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 10 44.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- Udan tabernan, umeak zaintzen edo antzerako gauzatan egingo nuke lan. Zuzendaritza idazkari ikasketak ditut. Tfnoa: (945) 44 51 37. Arantxa.

SALEROSKETAK

- Orbea Monkaio karrerista txirringua salgai. Dei egin 8etatik 9etara 79 23 56 tfnora.
- Ineska markako karru-denda oso egoera onean salgai. Dei egin gauetan 79 94 26 tfnora.
- Udarako kotxea! Renault 4 salgai. Dei egin eguerdian 79 02 10 tfnora.
- Ardi-txakur kumeak ditut salgai. Tfnoa: 79 67 76 Raul.
- Razesa markako karreterako txirringua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.
- 9 hilabeteko bideo-joku kotsola (Siega Master System II) salgai. Egoera ezin hobean. Kotsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (astebukaeratan).
- Bideo kotsola (Jamiko) + 150 jokuko kaseta + 4 jokuko bi kasette + bi kontrol mando = 15.000 PTA. Dei egin 7etatik aurrera 79 41 91.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.

DENETARIK

- ETBko txoriaren irudidun llaberoa galdu nuen giltza mordo batekin. Aurkituko bazenute, dei egin 79 94 83 tfnora.
- Poltsa txiki bat giltzekin aurkitu da Zamurdi aldean. Zurea bada dei egin 79 64 63 tfnora.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**



Juan Miguel Vitoria Galdos,
uztailaren 14an. 47 urte.

Ascension Carrasco Marquez,
uztailaren 16an. 77 urte.

Luis Zangitu Areizaga,
uztailaren 20an. 78 urte.

Maria Antonia Hurtado Rajado,
uztailaren 20an. 75 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Arturo Hernandez

Okoretegi tabernakoa



- Kafea hutsa ala esnearekin? Normalean ebakia hartzen dut.
- Goizez ala arratsaldez lan egitea? Berdin zait, antzera xamar egiten da lan.
- Pastela ala izozkia? Izozkia.
- Egarrria kentzeko, zer? Ura da onena.
- Hotza ala beroa? Beroa hobeto aguantatzen dut.
- Oinez ala bizikletaz? Oinez.
- Hondartza ala pizina? Hondartza.
- Eguzkitan ala kerizpetan? Kerizpetan hobe.
- Udan egiten duzu kirolik? Bai, tenis-a eta futbola.
- Asteko egun onena? Jai dudan eguna, asteazkena.
- Eta txarrena? Ez dago txarrik, besteak berdinak izaten dira.
- Zer da udan egin ezin duzuna? Nekatzen nauten gauzak.
- Udako kolorerik politena? Urdina.
- Lagunekin ala emaztearekin irteten duzu? Emaztearekin.
- Inguruko herrietako jaietara joaten zara? Ez, ez dut denborarik izaten.
- Eguna pasatzeko, nora? Kostaldera.
- Bikinia ala bainujantzia? Segun zeinentzat. Beno, bainujantzia.
- Argazki asko ateratzen duzu oporretan? Bai, nahiko.
- Jaietako erromeriak ala herri kirolak? Herri kirolak.
- Irakurri duzun azken liburua? "El silencio de los corderos".
- Zinera udan ala neguan? Neguan.

Bertsotan

Oporrak


1

Kurtsoan zehar esaminekin hainbat eta hainbat guda apunte tako sendo batzuekin makina bat duda muda eskerrak garaiz opor luzekin iritsi zaigula uda azkenik ondo merezitako errekreoa heldu da.

2

Opor hauetan hurbil ditugu gure herritako jaiak giro oneko festa ederrak mugituak ta alaiak gu gazteontzat goizaldekoak ordu egoki lasaiak aitik ordea "hauek ez dira etxeratzeko garaiak".

OIER SARASUA



ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



Udalaitz, 1977ko urriaren 16an

Orain ere jendeak badu zaletasuna familia bereko kide bat baino gehiago, eta batez ere belaunaldi bat baino gehiago, mendira joandakoan argazkia ateratzeko. Sarri atera izan dugu horrelakorik gure aldizkarian. Baina oraingo hau


erretratu zaharra da, Arrietarren familiako hiru belaunaldi Udalaiztera elkarrekin joan zirenekoa. 1977an atera zuten, urriaren 16an Udalaizten. Ezkerrean makilarekin, **Xabin Arrieta**, gure sail honetarako hainbeste argazki ekarri dizkiguna, eta aste honetan bertan ezkontzako urrezko eztaiak ospatu dituena. Eskutik bere iloba, **Josu** eta Josuren aita, **Jose Ramon**.

Urte askoan horrelaxe!



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g ARRASATE
Tfnoa: 79 20 50




UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia
Gauetz irekita!!
JO TA KE!!**

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Arrasateko Antzokia
7. Zatiketa
10. Abisatu
11. Italiako telebista katea
12. Barioa
13. Atsotitza
16. Amerizioa
17. Hiru adierazten duen aurrizkia
18. Gabezia

Bertikalak

1. Ganaduak
2. Armiarma
3. Guraso berberen semeak elkarrekin
4. Joan den urtean
5. Bukaera
6. Inguru
8. Ken soinekoa
9. Tropelaren aurreko aldean
14. Ku Klux Klan
15. Gaiso



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ARRASATE PRESS
Azoka kalea, 1
20.500 ARRASATE
(GIPUZKOA)

UDAKO POSTAL LEHIAKETA


Guk ere jakin nahi dugu zure oporren berri! Zauden lekuan zaudela, idatzi postal bat **ARRASATE PRESS**era eta **BI LAGUNENTZAKO AFARI EDER BAT** irabazi dezakezu.

Postalik saltsero, sinpatiko, humoretsu eta atseginena saritu nahi dugu.


Bidali lehenbait lehen, taldeka, familia guztiaren izenean edo bakarka, eta... zorte on!

ARRASATE PRESS.

EZ AHAZTU ZUEN HELBIDEA ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEN.



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuantzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gombidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIako INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearretarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.